

## koktela

### 'Urrezko anderea' edo xanpain koktela

**Osagaiak:** patarra (2 cl), curaçao zuria (2cl), laranja zukua (2cl), xanpain eta izotz puska.

Xanpain koktel honen sortzailezat jotzen da Mae West zena, aktorea. Estatu Batuetako New York hiriko Brooklyn auzoan jaio zen bera eta, antza, ez zuen

bere garaiko emakumeek ez bezala, hainbat grina jende aurrean erakusteko beldurrik izan. Edatea omen zen horietako bat. *Urrezko anderea* edabea, 1933an egin zuten lehen aldiz, *Ez naiz aingerua* filmaren estreinaldia zela eta. Berau prestatzeko, jarri koktelera izotzarekin batera patarra, curaçao eta laranja zukua. Astindu ondoren, bota xanpain kopa batera eta gaineratu xanpaina. Egun osoan zehar hartzeko koktela da.



EGUNKARIA

Apirilaren 29an, eguerdiko 12:00etan, Dantzaren Nazioarteko Egunen gala, Leidor aretoan.

### ikus-entzunezkoak

**BILBO.** 'Papa Ivan'. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Sarea elkartearen (Corazon de Maria, 4, San Frantzisko).

**DONOSTIA.** Kimuak 2: Film laburren emanaldia. Bihar, gaueko 22:30ean, Antzoki Zaharrean, iazko film labor garrantzitsuenak emango dituzte.

**'Irlandari buruzko dokumentala'.** Bihar, Arrano Irish Pub-ean (Egia), arratsaldeko 20:00etan.

**ELGOIBAR.** 'Zerda homeopatia, nola erabili daiteke' ikus-entzunezkoa. Gaur, arratsaldeko 16:00etan, kultur etxean, Karmele Benitoren eskutik.

**IBARRA.** 'Aconcagua' ikus-entzunezkoa. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, kultur etxean, Joseba Ugalderen eskutik.

**LEIOA.** 'Muestra de cine Latinoamericano'. Gaur, eguerdiko 12:00etan, EHUko Areto Nagusian.

**LESAKA.** '1936. Gerra Zibila Euskal Herrian' diaporama. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Iñaki Egañaren eskutik.

### hitzaldiak

**ALKIZA.** 'Lotsa, barruan darماغun etsaia'. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, kultur aretoan.

**ARETXABALETA.** 'Zer da aromaterapia'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe Zaharrean, Itziar Salegiren eskutik.

**BERMEO.** 'Nutrición y cocina saludable'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Antonio Plaomarren eskutik, Udal Liburutegian.

**BILBO.** 'La osasuna eta generoa, lan istripu eta ugalketa osasuna baino askoz haratago'. Gaur, 19:30ean, Bizkaiko Batzar Nagusietan, Lucis Artzacozen eskutik.

**DONOSTIA.** 'Gastronomía y vino'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Mikel Corcuerearen eskutik, Koldo Mitxelena Kulturunean.

'Zeramikaren teknologia Euskal

## hitzaldia

'Euskara batua. Sorrera, bilakaera eta geroa' Iruñeko Erraldioen Txokoan (20:00etan)

Xabier Martin | DONOSTIA

Juan San Martin idazle eta euskaltzain osoa izan zen euskara batua gauzatzeko lanean buru-belarri aritu zirenetako bat. Erronka zail horri aurre egitea egokitu zitzaionetik urte luzeak joan dira, 30 bederen bai. Gaur, Iruñeko Erraldioen Txokoan, lan horri buruz jardungo du, baita duela 30 bat urte sortu zen euskara horrek izan duen bilakaerari buruz ere.

**■ Euskara batua sortzeko erabakia hartzea ez zen makala izango, noski. Zein izan zenituzten garai hartan zailtasun handienak?**


Euskaltzaindia sortu zenerako, premia argia ikusten zen, euskararen inguruan zerbait egin behar zela, batasuna alegia, beste hizkuntzek eginga zuten antzera. Hala ere, lehenengo urteetan euskara batuaren egokitasunaren inguruan eztabaida gogorra egon zen.

**■ Zein agertu zen euskara batuaren aurka?**

Euskaltzaindian, barruan geunden ia guztiak aldeko azaldu ginen. Aurka egon zirenen artean,

## JUAN SAN MARTIN IDAZLEA ETA EUSKALTZAINA

«Idazteko ez ezik, hitz egiteko ere sortu genuen euskara batua»



GARI GARAIALDE

*Kardaberaz* mugimendua izan zen esanguratsuenetako. Bertan apaiz ugari zegoen. Bitxia da ordea, esaterako, Aita Villasante eta Lekuona batasunaren aldeko agertu izana.

**■ Euskara batuaren ardatz gisa gipuzkera hartu izana maiz kritikatu dute...**

Eztabaida hori gaindituta dago, argumenturik ez duelako. Beste euskalkietatik ere edan zuen batua, eta hori da hain zuzen euskaldunek egin behar dutena, alegia, euskalkiak gutxieneko maila batean ezagutu, euskara batu gero eta aberatsagoan hitz egiteko eta idazteko.

**■ Zuek espero zenuten bila-kaera izan al du euskara batua 30 urteotan?**

Baietz esan daiteke, guk proposatutako lege ugari, dela ortografia mailan, dela joskera mailan, betetzen ari direlako.

**■ Aurrekusi zenuten, idazteko ez ezik, ikastoletako gazte askok hitz egiteko ere, batua erabiliko zutela?**

Jakina baietz. Guk euskara batua euskaldunen hizkuntza idatzia eta ahozkoa izateko sortu genuen.

**Herriko Protohistorian'.** Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Aranzadi Zientzia Elkartearen egoitzan (Zorroagan).

**'Los Jesuitas y el periodismo'.** Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Deustuko Unibertsitateko Ignacio de Loiola Institutoan, Isidoro Pinedoren eskutik.

**'Ipar-Irlandako bake prozesua'.** Bihar, arratsaldeko 20:45ean, Arrano Irish Pub-ean (Egia), Sinn Fein alderdiko kide baten eskutik.

**'La Compañía de Jesús y los medios de comunicación social en el mundo de hoy'.** Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Deustuko Unibertsitateko Ignacio de Loiola Institutoan, Pedro Miguel Lameten eskutik.

**IRUÑEA.** 'Euskara batua.

**Sorrera, bilakaera eta geroa'.** Gaur, Erraldioen Txokoan, arratsaldeko 20:00etan, Juan San Martinen eskutik.

**'Nuevas o viejas tensiones entre estados europeos'.** Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Nabarria kulturunean, Tomas Urzainkiren eskutik.

**ORIO.** 'Evitar los problemas de columna en la vida diaria'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean, Michel Marmier medikuaren eskutik.

**URRETU.** 'Saharako herria'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean.

### bestelakoak

**ARRASATE.** 'Bar Puerto,

**bazterreko ahotsak'.** Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Monterron liburutegian, Kirmen Uribe, Mikel urdangarin eta Josu Eizagirreren eskutik.

**DONOSTIA.** 'Poesía Urumeari begira. Olerki Toketak II'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Loiola Kultur Etxean, Noni Benegas, Menchu Gutierrez, Harkaitz Cano, eta Jean Michel Maulpoixen eskutik.

**'Poesía Urumeari begira. Olerki Toketak II'.** Apirilaren 28an, 20:00etan, Loiola Kultur Etxean, Chus Pato, Jean Ristar, Ester Zarraluki eta Miguel Casadoren eskutik.

**'Bidaia: tesina tragikomikoa eta testuen irakurketa oniriko'.** Gaur, gaueko 21:30ean, Ziripot tabernan, Zeharaka Laborategiaren eskutik.

**GERNIKA.** Gernikako Bonbardaketaren 64. urteurrena. Ekitaldiak egun osoan, bonbardaketan hildakoen omenez.

**GETARIA.** 'Lamiak' ipuin kontakizuna. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Alondiga Zaharrean.

**HONDARRIBIA.** 'Bidaia: tesina tragikomikoa eta testuen irakurketa oniriko'. Bihar, gaueko 22:00etan, Muara Elkartearen, Zeharaka Laborategiaren eskutik.

**Pello Añorga ipuin kontalaria.** Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Udal liburutegian. Helduei zuzendua.

**IBARRA.** Esaiten aurkezpena. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, kultur etxean.

**IRUN.** Helduentzako ipuin kontalaria. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Udal liburutegian.

**Poesia emanaldia.** Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Javier Sistiaga eta Jesusu Rodriguezen eskutik, Udal liburutegian.

**LUZAIDE.** Ipuin kontalaria. Bihar, arratsaldean, eskoletan, heldu eta haurrentzat.

**MUTRIKU.** Arantza Cañamases ipuin kontalaria. Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Udal liburutegian.

**UHARTE.** 'Café con versos' errezitaldia. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Maria Jesus Joda eta Iñaki de Miguelekin.

**URNIETA.** VII. Garagardo festa. Gaurtik, maitzaren lehenera, Belauntza Jauregian.

**ZARAUZ.** Garagardo Azoka. Gaurtik, maitzaren lehenera, Munoan.